



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko martxoaren 1ean

15 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Prosamenak:

—Lege proposamena, alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzeari buruzkoa, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laborantza transgenikoen nekazaritza-diagnostikoa urtero egin dezan, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da medikuntza orokorreko 46 mediku lanposturako deialdia alda dezan, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak aurkeztua (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egin (9. or.).

—Burlatan kultura etxea eraikitzeari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egin (10. or.).

—Tafallako lurzati berrantolamenduaren espedienteari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak egin (10. or.).

—Osasun Departamentuko Informazio Sistemen Zerbitzua departamentuz aldatzeari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak egin (11. or.).

—Iruñea eta Irurtzun arteko trafikoari buruzko galdera, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentario jaunak egin (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Lege proposamena, alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua-ren babesean, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onar-tzeari buruzko Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145 eta 204. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena. Alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzeari buruzko Lege pro-posamena biderapena onestea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Lege Proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako".

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lege proposamena, alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzeari buruzkoa

ZIOEN ADIERAZPENA

Prostituzioa omen da munduko lanbiderik zaharrena. Milaka urteko ibilbide historikoan zehar, gehienbat emakumeak aritu izan dira horretan, ogibide gisa. Gizarte-egituren aldaketa azkarrak liberalizazioa ekarri du giza-harremane-tan, eta, gaur egun, gizonak zein emakumeak ari dira alternean.

Hala ere, alterneak, lanbide gisa hartuta -pros-tituzioa baino jarduera zabalago eta globalagoa baita-, ez du gizarte-errekonozimendurik, oraindik. Alternea, jarduera eta kontzeptutzat hartuz gero, gehiago hedatzen da, eta giza- eta gizarte-harre-manen beste alde batzuk barnehartzen dituen errealitatea definitzen du; izan ere, gizarte gara-tuetan zabaldu den laguntasun-eskaria eta beha-rrizana du oinarri.

Espainian, Europako gainerako tokietan beza-la, alternean ari diren lokalen eta pertsonen kopu-ruak gora egin du nabarmen; batez ere, estatuen eta herrien arteko gizarte- eta ekonomia-desore-kak erakarri duen emigrazioaren ondorioz. Etorki-nak etengabe heltzen dira, Latinamerikatik eta Europako ekialdetik, batez ere, eta aipatu jardue-ra horretan bilatzen dute bizibidea.

Ezin jakin zenbat pertsona ari den alternearen lanbidean. Jarduera horri lotutako beste alderdi garrantzizko batzuk ere ezezagun dira; izan ere, ez du ezagutze ofizialik, gizartearen aurreiritzien menpe dago, eta horretan aritzeko baldintzak arautu eta kontrolatu gabe baitaude, erabat. Ego-era horrek bazterkeriara kondenatzen ditu hainbat pertsona, beharrian-egoeren esplotazioa erraz-ten du, eta alternean ari diren pertsonak mafia eta ustiatzaileen bahituri bihurtzen ditu, trukatzeko merkatugai eta indarkeriaren xede. Lanbide honen arriskuetatik begiratzeko aitzakiarekin, era guztietako mehatxuak eta derrigortzeak ezartzen dizkiete, indar fisikoa barne.

Ordaindutako alternea jardueratzat edo zerbi-tzu-ematetzat hartzen ez denez, ezin dira lan- eta zerga-eskubide eta betebeharrak aitortu, hala lan-gileenak, nola enpresario ustiatzaileenak. Egoera horrek ezinezko egiten du lansaria edo ordaina eskatzea emandako zerbitzuengatik, ez baitago eskubide hori babestuko duen legezko betebehar-ri. Egoera horrek erraztu egiten du hainbat eta hainbat onura edo mozkin ekonomiko ezkutatzea, Ogasun Publikoaren kontrolpetik at baitaude. Era berean, jardueraren kontrol zabalagoak ere era-

gozten ditu, araz kanpo dauden pertsonak bilatzeaz aparte.

Europako hainbat gobernu eta gizarte-antolamendu ari dira legezkatze-bideak aztertzen, bazterkeriari eta esplotazioari amaiera emateko; izan ere, gero eta jasangaitzago eta justifikagaitzago baitira ekonomia eta gizartearen aldetik horren aurreratuta dauden estatuetan. Ezinbestekoa da egoera hori abolitzea, mozkin handiak eta arrisku txikia dakarren esklabotasun eta joputza berria errazten baitu. Europako legelari, aditu, gobernue-tako organu eta gizarte talde zenbaitek beharrezko ikusten du inmoralitate-kontzeptua gai honetatik askatzea -guztiz subjektibo eta defendaezintzat jotzen dutelako, gaur egun-, eta egoera modu objektiboan tratatzea, legearen ikuspuntutik. Aitor-tzen dutenez, jarduera eta jardule horiekiko aurreiritzi aspaldikoek indarrrik gabe uzten dute onarpen zibil edo ekonomikoa lortzeko ekimen oro.

Lege honek egoera tamalgarri hori gainditu nahi du, eta bideak jarri gizarte-talde horrek esku-bide-betebehar berberak izan ditzan, alegia, gainerako langileen parekoak, gizarte-babes eta guzti. Alternea jardueratzat edo zerbitzutzat aitor-tzearen helburu nagusia zera da: horretan diharduten pertsonen lege-tresna bat ematea, beraien lanbidea errekonozitua izan dadin eta beraien eskubideak defendatu ahal izan ditzaten, baldintza-berdintasunean, bazterkeria gainditu eta gizarte-aurreiritziak erazteko, zeinek eragotzi egiten baitute lanbidean baldintza egokietan aritzea, norbere buruaren jabe izatea eta bestelako lan-aukerak bilatzea.

Alternean ari diren pertsonen gizarte-, lan- eta osasun-jarduketarako oinarriak ere ezarri dira. Aldi berean, alterne-lokalen oinarrizko baldintzak finkatu dira, baita jarduera horretan ariztetik edo jarduera ustiatzetik heldu diren lan- eta zerga-betebeharrak kontrolatzekoak ere.

Aintzat hartzea eta normalizazioa

1. artikulua - Aintzat hartzen da ordaindutako alterneak baduela presentzia iraunkorra gizartean, eta alternean ari direnak parekatze bat behar dutela, ondorio legezko eta praktikoetarako, lege- eta gizarte-babeserako duten eskubideari dago-kionean, Espainiako Estatuan duten lan- eta bizi-baldintzak hobetze aldera.

2. artikulua - Zerbitzuen sektoreari lotutako jardueratzat hartzen da alternea. Alterneari lotutako langileak eta enpresarioak irabazizko jarduera batean ariztetik heldu diren betebeharren menpe izanen dira; era berean, eskubidea izanen dute

beraien betebeharrak betetzetik datozen lege-babesa eta gizarte prestazioak izateko, gizarte eta lan harremanak normaltzeko esparru batean.

3. artikulua - Estatuko Gobernuak, autonomi erkidegoetako gobernuen eta gizarte-erakunde-ekin koordinatuta, zelai-azterketa burutuko du hurrengo helburuekin: aipatu jarduerari eta horretan dihardutenei buruzko datu esanguratsuak atezratzea eta dauden beharrianak ebaluatzea, zertarako-eta gizarte- eta osasun-laguntzarako zein lege-babeserako neurri eta jarduketak planifikatzeko, alternean diharduten pertsonentzat; orobat, indarrean dauden lege eta erregelamenduak betearaztea, alternean diharduten pertsonen baldintzak nabarmen hobetzeko.

4. artikulua - Erakunde publikoek ekimenak bultzatuko dituzte, alternean dihardutenei informazioa, prestakuntza eta beste aukera soziolaboratetan sartzeko bidea emateko. Era berean, laguntza emanen diete gizarte-erakundeei, kultura- edo lan-prestakuntzarako edo pertsona-sustapenerako ekimenak antolatzen badituzte.

Lan-harremanak

5. artikulua - Ordaindutako alternean hirugarrenen kontura dihardutenek, lokal publikoetan edo erabilera murriztukoetan jardun ere, eskubidea izanen dute indarreko legedia beteko duen laneko edo zerbitzu-errentamenduko kontratu baten babesa exijitzeko, gainerako langileen egoerarekin parekatzearen.

6. artikulua - Lokal publikoetan edo erabilera murriztukoetan ordaindutako alternean diharduten pertsonak kontratatzen dituzten enpresarioek dagozkien betebehar guztiak bete beharko dituzte, eta laneko edo zerbitzu-errentamenduko banakako kontratua izenpetu, kontraturiko pertsonen lege- eta gizarte-babesa ematearren.

7. artikulua - Atzeritarrek lan-aurrekontratu exijitzeko eskubidea izanen dute, eta enpresarioak eman egin beharko du, Estatuan duten egoera legezkatze, etxebizitza eskuratu ahal izateko edota beraien egoera erregularizatzeko beste edozein neurritarako.

8. artikulua - Alternean norbere kontura dihardutenek zerbitzuen alorreko langile autonomo gisa bete ahal izanen dituzte beraien betebehar tributarioak, lege- eta gizarte-babesaren onurak eskuratzearen.

Osasun prestazioak

9. artikulua - Alternean diharduen pertsona orori aitortzen zaio -gure Estatuan dagoen bitartean- osasun-prestazio publiko ororako eskubidea, nondik datorren edo legezko egoerari begiratu gabe.

10. artikulua. 1.- Norbanako osasun txartela emanen zaie atzerritarrei, legezko egoera edozein dutela ere, gure Estatuan dauden bitartean osasun-sare publikoaren laguntza oinarrikoaren eta espezializatuaren baliabideetara iristeko aukera izan dezaten, gainerako herritarrek bezala.

2. Atzerritarrek adin txikikoak badituzte bere kargu, osasun-txartel bana emanen zaio seme edo alaba bakoitzari, baldintza berberetan, osasun-laguntza eta gainerako prestazioak izan ditzaten gure Estatuan dauden bitartean.

11. artikulua - Sexu bidezko gaixotasunen prebentzio eta tratamendurako programez gain, osasun-hezkuntzarako eta lan-arriskuetatik babesteko programetan sartzea ere sustatuko da.

Lan-arriskuei aurrea hartzeko neurriak

12. artikulua - Alternea lanbide dutenek esku-bidea dute informazioa, prestakuntza eta tratamendua jasotzeko osasun publikoko profesionalengandik, hala oinarriko laguntzan nola espezializatuan, eta baita sexu bidezko gaixotasunen eta GIBaren arriskuen prebentzio eta babesarako programa berezien bitartez ere.

13. artikulua - Osasunerako Mundu Erakundeak sexu-osasunari buruz emandako gomendioei jarraiki, Osasun Ministerioak, Osasun Publikoaz arduratzen diren organoen bidez, sexu bidezko gaixotasunei eta GIBari aurrea hartzeko neurriak prestatuko ditu, alterne-lokaletan ezarri eta bezeroek eta langileek bete ditzaten.

14. artikulua - Estatuko eta autonomi erkidegoetako erakunde publikoek, gizarte-erakundeekin koordinatuz, programa bereziak sustatu eta garatuko dituzte kalean alternean dihardutenei laguntza soziosanitarioa eta heziketa emateko; arreta berezia eginen zaie drogazaleei.

Gehiegikerien eta esplotazioaren aurkako babesa

15. artikulua - Alternean dihardutenei, portu txarra edo edozein motatako bortxa fisiko edo psikikoa jasan badute, laguntza jasoko dute indarke-riaren biktimei arreta egiteko sarearen baitan, eta Estatuan horrelako egoeratarako dauden gizarte-laguntza eta -prestazio berberak izanen dituzte.

16. artikulua - Zintzo jokatu beharko da gehiegikeriak, amarruak edo beharrian- edo ahuldade-egoera baten esplotazioa daudelako susmorik bada.

17. artikulua - Indarkeria eta tratu txarreko delituen ustezko biktime atzerritarrek Estatutik kanpora bidaltzeko egintza oro deusezteko lege-prozedura guztiak erabiliko dira, epai-eginbideak bukatu arte Estatuan gera daitezen.

Alterne lokalak

18. artikulua - Alterne-lokalek lan-lotura ezarriko dute, laneko edo zerbitzu-errentamenduko kontratuen bitartez, lokaletan lanean ari den edo lokaleko bezeroei zerbitzuak ematen dien pertsona bakoitzarekin. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eta Estatuko oinarriko legedia garatzeko ardura duten autonomi erkidegoetako organoek dagozkien ikuskapenak eginen dituzte, aldiro-aldiro, aipatu betebeharrak betetzen dela egiaztatzeko.

19. artikulua - Ostatu-, aisialdi-, ikuskizun-lokaletan eta antzekoetan eskumena duten organismo publikoetako ikuskapen-zerbitzuek etengabeko kontrola ezarriko dute, halako moldez non lokal orori gutxienez bi ikuskapen eginen zaizkion urtero, lokalaren funtzionamendu-baldintzak egiaztatzeko.

20. artikulua - Ogasun Ministerioak, gaiari ezar dakizkiokeen neurri administratiboak beteaz gain, beharrezko dispositiboak garatuko ditu alterne-lokalen eta aipatu lokaletako jabe edo kudeatzaileen errenta eta ondare-ondasunen zerga-betebeharrak bereziki kontrolatzeko programa abiarazteko.

21. artikulua - Osasun Ministerioak, alterne-jarduna hobetzeko neurri administratiboak beteaz gain, alterne lokalak ikuskatuko ditu, aldiro-aldiro, zera egiaztatzeko: osasun-baldintzak, aipatu lokaletako bezeroen eta langileen osasun-arentzako arriskuak ekiditeko material aurrehartzaille eta informatiboa badela eta beharrezko jotzen duen beste edozer.

Xedapen gehigarriak

Lehena - Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gehienez urte beteko epean abiaraziko ditu Estatuko Gobernuak lege honetan ezarri diren xedapenak.

Bigarrena - Sei hilabeteko epean, gehienez ere, garatuko dira erregelamenduz lege honetan ezarri diren xedapenak.

Hirugarrena - Sei hilabeteko epean, gehienez ere, ekinen zaio lege honen edukiari eragiten dion indarreko arautegia aztertu eta egokitzeari.

Xedapen derogatzailea - Derogatu egiten da lege honi aurka egiten dion xedapen oro, maila bereko edo apalagoko den.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laborantza transgenikoen nekazaritza-diagnostikoa urtero egin dezan

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: «Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen laborantza transgenikoenda nekazaritza-diagnostikoa urtero egin dezan».

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babespean, hurrengo mozioa aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko

Mundu guztian hedatu dira hazi transgenikoak nekazaritza-laboreetan. Hazi transgenikoari taxuketa genetikoa aldatu zaio, ekoizpen gehiago eta pestiziden aurkako erresistentzia handiagoa lortzeko.

Hainbat multinazional hasi dira hazi transgeniko horiek merkaturatzen (artoa, garia eta soia, batez ere); eta hain dira ekoizkor eta ekonomikoki errentagarri, ezen eskari handia sortu baitute nekazaritzan eta abeltzaintzan, orobat elikaduraren industrian. Egoera larriagotzeko, botere publikoek apenas kontrolatu eta arautzen dituzten mer-

katu hori eta ekosistemari eta osasun publikoari erakar diezazkiekeen ondorioak.

Kolonbiako Cartagenan ari dira egunotan nazioarteko konferentzia bat egiten, UNOk babes-turik, eta biosegurtasunerako protokoloa ezarri nahi dute, jaki transgenikoen trafikoa mundu-mailan arautzeko.

Nazioarteko hainbat txostenek ohartarazi dute gai transgenikoak arriskutsuak direla bai gizakientzako, bai ekosistemarentzako. Gaixotasun berriak agertzea eta bestelako gaixotasun batzuk sortzen zituzten organismoak aldatzea, jakien manipulazio genetikoaren ondorio dira. Aldi berean, egiaztatuta dago aipatu gaiak kontsumitzen dituztenek alergia izaten dituztela, eta antibiotikoekiko erresistentzia ahuldu egiten zaiela. Ingurugiroa ere aldatzen ari da bioaniztasuna ukitzen duten gai transgeniko horiek erabiltzearen ondorioz, eta eraginak ezin dira igarri. Nekazaritzako ohiturak ere aldatuz doaz; izan ere, pestizida gehiago erabiltzen da, eta ingurugiroarentzako behar-beharrezko diren animalia eta landareak ere galduz doaz.

Europako Batasunean, Espainiako estatua dugu arto transgenikoaren lehen inportatzailea, gehien lantzen duena (20.000 ha 1998an), eta soia transgenikoaren bigarren inportatzailea.

Espainiak 1998ko abenduan Europako Batzordeari jakinarazi zionaren arabera, ekoizpen transgenikorako 124 saio egina zituen. Horietatik 107, Estatu Batuetako eta Frantziako multinazionalak sustatu dituzte, eta Espainiako ikerketategiek 17 besterik ez.

Era berean, badakigu Nafarroan ere elikagai edo jaki genetikoki aldatuak lantzen eta ekoizten direla.

Egun, Europako arauen arabera, «Genetikoki eraldatutako gaia» izena daraman etiketa jarri behar zaie gai transgenikoei, Europa guztian.

Etiketei buruzko arau orokorreari bagagozkie, badago ontziratutako elikagaien etiketa, aurkezpen eta publizitateari buruzko arau nagusi bat, zeinaren arabera etiketek hurrengoak eraman behar baitituzte: gaiaren izena, osagaien eta aditiboen zerrenda, pisua, gordetzeko modua, erabiltzeko modua, ekoizlea, noiz gomendatzen den kontsumitzea eta iraungitze-data. Arau horien helburua zera da: kontsumitu behar diren ondasun eta gai guztien nolakotasunei buruzko informazio egia, eraginkorra eta nahikoa ematea kontsumitzaileari.

Gai eta zerbitzuei buruzko informazio zuzen horretaz gain, botere publikoen esku jarri da gutxiagotasun, menpekotasun edo indefentsio egoeran dauden kontsumitzaileen babes juridiko, administratibo eta teknikoak.

Merkatuko marka gutxik betetzen ditu, ordea, gai transgenikoen etiketei buruzko arauak.

Horiek horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztuko dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nekazaritza-diagnostikoa egin dezan, urtero, Foru Komunitateko lanke-ta transgenikoei buruz. Hurrengoei bidaliko zaie

diagnostikoa: Nafarroako Parlamentuari, eta Foru Komunitateko nekazaritza-antolamenduei, kontsumitzaileen antolamenduei eta antolamendu ekologistei.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, haren eskumenez baliatu eta eskueran dituen baliabide oro jar ditzan Nafarroan lantzen den gai transgeniko orok bete dezan Europan horri buruz jarri den arautegia, eta "genetikoki eraldatutako gaia" ezaugarria egoki eraman dezan.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berri emateko kanpaina bat abiaraz dezan, hala nekazaritza-ekoizleentzako, nola kontsumitzaileentzako, gai transgenikoak ekoizteak eta kontsumitzeak osasunari eta ingurugiroari dakartzkien arriskuei buruz.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Foru Komunitateak bere dituen eskumenak baliatu eta elikagai transgenikoen trafikoa arautzeko Foru Lege proiektu bat bidal dezan.

Iruñean, 1999ko otsailaren 19an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da medikuntza orokorreko 46 mediku lanposturako deialdia alda dezan

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da medikuntza orokorreko 46 mediku lanposturako deialdia alda dezan.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarraga, "Ezker Abertzalea" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Biltzarreko Erregelamenduan xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatua eta bozkatua izan dadin:

1.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak deialdi bat argitaratu zuen, urriaren 22an emaniko 1293/1998 Ebazpenaren bidez, 1998ko abenduaren 14ko 149 zk.ko NAO-n argitaratu ere. Bada, Nafarroako Gobernua premiatzen dugu deialdi hori eten dezan, aldi baterako.

2.- Nafarroako Gobernua premiatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 22an emaniko 1293/1998 Ebazpena (1998ko abenduaren 14ko 149 zk.ko

NAO) alda dezaten, alegia, Larrialdietarako Zerbitzu Arrunteko 9 lanpostu atera ditzatela deialditik.

3.- Nafarroako Gobernuak premiatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantila organikoa alda dezan, nola-eta egun Nafarroako Larrialdi Zerbitzuan diren lanpostu guztiak (Larrialdietarako Zerbitzu Berezia, Larrialdietarako Zerbitzu Arrunta, SOS Nafarroa eta anbulantzia medikalizatuak) betegabeko lanpostutzat ager daitezen aipatu eskaintzan.

Deialdi berezia onestea Larrialdi Zerbitzurako, non programa eta aintzat hartzeko merezimenduak larrialdi-espezialitaterako bereziak izanen baitira.

4.- Nafarroako Gobernuak premiatzea dagokion enplegu-eskaintza publikoa onets eta argitara dezan, aurreko puntuan ezarritakoarekin bat.

5.- Nafarroako Gobernuak premiatzea deialdi berezia onets dezan Larrialdi Zerbitzurako, non programa eta aintzat hartzeko merezimenduak larrialdi-espezialitaterako bereziak izanen baitira.

6.- Nafarroako Gobernuak premiatzea aipatu deialdiaren bidez modu finkoan bete ditzan aurre-

tik eskaintako lanpostu horiek (hirugarren puntuan adierazitakoaren arabera).

7.- Nafarroako Gobernuak premiatzea hauxe alda dezan: 1638/1998 Ebazpena, abenduaren 21ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana (1999ko urtarrilaren 20ko 9 zk.ko NAO). Honela:

Esaten duenean: "...horietako 15 euskaraz dakitenentzat...", hauxe esan behar du: "...horietako 18 euskaraz dakitenentzat..."

Zioak: aldi baterakotasuna lan-kontratu motatzat gehiago ez erabiltzeko beharrak ekarri du mozio hau -are gehiago lanpostu hutsik izan gabe betetzen ari diren lanpostuetan-; izan ere, gizabaliabide iraunkorrez hornitu behar dira larrialdi zerbitzuak, lan-baldintza duinetan, eta egin beharreko lana ezagututa, halako moldez non zerbitzua, eta laguntza medikoa, hobetu eta egonkortuko diren.

Iruñean, 1999ko otsailaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Pedro Romeo Lizarraga

F saila:
GALDERAK

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeko Osasungaietarako Bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

1998ko abuztuan emandako foru dekretu batek ezarri zuen San Frantzisko Xabierkoa Ospitale Psikiatrikoa Zentro Psikogeriatriko bihurtzeko araubidea. Zentro Psikogeriatriko bihurtutako Ospitale Psikiatrikoa adinduentzako osasun mentaleko baliabide berezia izatera pasatu da.

Hala ere, koadro psikotikoak dituzten adindunak (65 urte ingurukoak) egoitza arruntetara bidaltzen ari dira, non egoiliarren batez-besteko adina 82 urte ingurukoa den.

Adindun psikotikoak egoitza arruntetan atenditzeak baditu zailtasunak; izan ere, adin-diferentziak eta adinduenen zaurgarritasun fisikoak elkarbizitzeko arazoak sortzen dituzte, baina, batez ere, krisi larriei aurre egiteko gai den laguntza profesional berezia behar delako.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1) Zer da San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoa: trastorno psikikoak dituzten adinduentzako osasun mentaleko baliabidea, ala Alzheimerrak eta antzeko gaitzak jotakoentzako?

2) Zer baliabide berezi ditugu Nafarroan gaisotasun mental kronikoek jotako adindunei arreta egiteko?

3) Adindun psikotikoak zaharretxetara bidaltzen ari direnez, ba al dira laguntza emateko giza-baliabide espezializatuak, koadro psikotikoa agertzen duen pertsona sartzan denerako?

Iruñean, 1999ko otsailaren 18an

Foru Parlamentarioa: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Burlatan kultura etxea eraikitzeari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Burlatan kultura etxea eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Burlatako Udalak berrikitan azaldu du kultura etxea eraikitze asmoa, herri horretan ez baitago halakorik.

Hain zuzen ere, Burlata da kultura etxerik ez duen 4.000 biztanletik gorako Nafarroako herri bakarra.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1) Zer laguntza bideratzen ditu Nafarroako Gobernuak kultura etxeak eraikitzeko?

2) Zer irizpide dago udalei kultura etxeak eraikitzeko dirulaguntzak ematea arautzeko?

3) Zer asmo du Nafarroako Gobernuak Burlatako kultura etxea eraikitzea dela-eta?

Iruñean, 1999ko otsailaren 18an

Foru Parlamentarioa: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Tafallako lurzati berrantolamenduaren espedienteari buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak Tafallako lurzati berrantolamenduaren espedienteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulok, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Tafallako nekazariak gero eta gutxiago dira, eta bostehun erregu herri-lur inguru lantzen du

bakoitzak; beraz, lurzati berrantolamenduan ustiatzeko gutxienezko gainditzen dute (50 ha). Kontuan hartu behar da Tafallako nekazari eta biztanleek ez dutela interes handiegirik lurzatiak berrantolatzeko; aitzitik, auzoak eta taldeak horren kontra agertu dira. Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zein da Tafallako lurzati berrantolamendurako espedientearen hasiera-eguna?

2.- Zein da Tafallako lurzati berrantolamendua jendaurrean jartzeko epearen hasiera-eguna? Noiz bukatzen da? Zenbat pertsonak agertu du jakinmina?

3.- Nola dago, egun, Tafallako lurzati konzentrazioaren espedienteak? Zer egutegi aurreikusi da jarduketarako?

4.- Nagusiki nekazari ziren zenbatek izenpetu zuten lurzati berrantolamenduari hasiera emateko eskaria edo baimena? Zer ehuneko ordezkatzan zuten? Izenpe bikoizturik edo deusezik agertu al da? Hala bada, bakoitzetik zenbat?

5.- Ba al da "Nafarroako estepako hegazti-fauna zaintzeko hegazti interesgarrien inbentarioa eta kategorizazioa" izenekorik? Hala bada, ba al da Tafallako udal dermioko alderen bat inbentarioaren barruan? Hala bada, nola dago katalogatuta? Zer esan nahi du katalogazio horrek? Noraino

heltzen da? Zer neurri hartu da aipatu aldea babesteko?

Iruñean, 1999ko otsailaren 18an

Foru Parlamentarioa: Inmaculada Matías Angulo

Osasun Departamentuko Informazio Sistemen Zerbitzua departamentuz aldatzeari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeak Osasun Departamentuko Informazio Sistemen Zerbitzua departamentuz aldatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babespean, hurrengo galdera

egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion

Egia al da Nafarroako Gobernuak administrazio-egitura aldatzea aurreikusi duela hurrengo egunotan, alegia, Osasun Departamentuko Informazio Sistemen Zerbitzua Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusira pasatzea?

Hala bada:

- Zer arrazoik justifikatzen du neurri hori?

- Aipatu aldaketa jakinarazi edo kontsultatu al zaie sindikatuetakoko ordezkarietara? Negoziatu al da horiekin?

Iruñean, 1999ko otsailaren 19an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Iruñea eta Irurtzun arteko trafikoari buruzko galdera

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentario jaunak Iruñea eta Irurtzun arteko trafikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Fermín Ciáurriz Gómezek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentarioak, Askotariko Taldeari atxikiak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikularen eta hurrengo babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zer datu eguneratu eta konparatu ditu, azken urteotakoak, Iruñea eta Irurtzun bitarteko errepide-zatiaren trafikoari buruz?

- Azken urteotako datu konparatuak.

- Ibilgailu arin eta astunen arteko banakatzea, halakorik bada.

2.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zer datu ditu aipatu zatian azken urteotan gertatu diren istripuen kopuruari buruz?

3.- Zer proiektu burutzeko asmoa du aipatu Departamentuak Asteraingo bidetik etorri eta Irurtzun hirigunetik pasatzen den trafikoa desbideratzeko, arriskutsua baita Irurtzungo oinezkoentzat?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: Fermín Ciáurriz Gómez

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 6.000 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---